

# *Julene Azpeitia*

## *Lehiaketa*

*Ipuin eta bertso paperak 2003*



# JULENE AZPEITIA LEHIAKETA



**IPUINAK ETA BERTSO PAPERAK**

**2003. URTEA**

Argitaratzailea: \_\_\_\_\_



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea: \_\_\_\_\_



■  
**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
Kultura Saila

■  
*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura Sailaren laguntza jaso du*

# aurkibidea

## HITZAURREA

Juan José Ziarrusta Campo  
*Alkatea*

Mari Jose Balier Orobio-Urrutia  
*Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko presidentea*

## IPUINAK

YANG-LIN, UME ITSUA  
*Ainhoa Diez Sanz*

HARRI HANDIKO HONDARTZA  
*Irati Areitioaurtena Oiarzun*

KAMISETA MAGIKOA  
*Nerea Aizpurua Iglesias*

TERMOSTATOA  
*Idoia Aboitiz*

EGUNEROKO EGUNEROKO  
*Ianire Gomez de Segura*

ZERGATIK? HARGATIK  
*Julene Idoate Legorburu*

ZAZPI EGUN MARTARIK GABE  
*Jon Aiastui*

BIHOTZ GORRIAK  
*Josu Waliño*

# aurkibidea

## **BERTSO PAPERAK**

### **NATURA ZAINTZEN**

*Mikel Zumarraga Azkarate*

### **EUSKERA ETA EUSKALDUNAK**

*Matxalen Manzisidor Mugertza*

### **BERTSOAK**

*Izarne Totorika Txurruka*

### **ERDI BANA**

*Uxue Alberdi Estibariz*

# hitzaurrea

Azken urteotan, Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko presidentek idazten zuen argitalpen honen hitzaurrea. Aurtengo honetan, oster, lerro batzuk kendu nahi izan dizkiot, 1983. urtean, ni neu tarteko nintzela, *Julene Azpeitia I. Ipuin Lehiaketa* martxan jarri genuen zinegotziei nire eskerrona adierazteko. Era berean, gogora ekarri nahi ditut lehiaketa antolatzeko ideia aurkeztu ziguten Kultura Kontseiluko partaideak.

Hogei urte igaro ostean, liburu hau haur eta gazte durangarrek euskaraz idatziriko literatur lan txikien lekuko eta bilduma bilakatu da.

Durangoan, 2003ko azaroan.

JUAN JOSÉ ZIARRUSTA CAMPO  
*Alkatea*

# hitzaurrea

Alkatearen hitzen ostean, zertxobait adierazi nahi dut Durangoko Udaleko Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeak edizio honetarako prestatu duen berrikuntzaren inguruan: 2003ko Julene Azpeitia Lehiaketaren ipuin eta bertso sarituen argitalpena kolorezko marrazkiekin dator atonduta, eta txukun asko nire ustez. Edozelan ere, benetan garrantzitsua eta aipagarria liburuak biltzen dituen lanak dira, ederrak eta maila onekoak guztiak.

Durangon, 2003ko azaroan.

MARI JOSE BALIER OROBIO-URRUTIA

*Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko presidentea*



julene azpeitia  
lehiaketa 2003

**i p u i n a k**



**Ainhoa Diez Sanz**

Irabazlea 11-12 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola





julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea



## ■ Yang-Lin ume itsua

Yang-Lin, bost urteko mutil txinatarra zen. Txinatar askok bezala, Yang-Lin-ek ez zuen eskolara joateko aukerarik, bere familia behartsua zelako. Horrez gain, Yang-Lin-ek bera baino nagusiagoak ziren beste hiru anai-arreba zituen: Shuang-Fa, Xinen-U eta Xemin-Wai. Bera gazteena zenez, amarekin etxean geratu behar izaten zuen, anai-arrebak eskolan zeuden bitartean. Aitak berriz, etxetik kanpo egiten zuen lan familia aurrera eraman ahal izateko. Yang-Lin, edozein ume bezalakoa zen gauza batetan izan ezik: jaiotzetik itsua zen. Begietako gaixotasun ikaragarri bat zuen, horregatik, ez zeukan kale-ira irteteko aukerarik. Zuten diru gutxiaren alderik gehiena medikutan gastatu zuten, baina alferrik, denek erantzun bera baitzuten:

- Sentitzen dut andrea, baina zure semeak medikuok ezagutzen ez dugun gaixotasun bat du. Barkatu baina nik ezin dut ezer egin.

Beti erantzun bera entzunik, denak etxera bueltatzen ziren inoiz baino tristeago.

Wan-Fun-en, Yang-lin bizi zen herrixkan, bazegoen iturri famatu bat: bertako ura, gardena, garbia eta fresko-freskoa zelako; baina benetan famatu kondaira batek egin zuen. Elezaharrak zioenez, norbaitek gaixotasunen bat edukiz gero, eta iturri hartatik edanez gero, gaixotasun hori desagertu egingo zen.

Beno lehengora bueltatuz...





Eguzkia jada, ezkutaketan jolasten hasi balitz bezala, gordetzeari ekin zion mendi garaien eta laino gorrien artean, beraz iluntzera zioan eta iluntzeaz batera, afaltzeko ordua zen:

- Haurrak, afaltzera! -deitu zuen Yang-lin-en amak.

- Bagoaz! -erantzun zuen Xineng-Li-k neba itsua besoetan hartzen zuelarik. Amak, zeukaten arroz apurra, denen artean banatzen hasi zen beretzat zatirik bikiena gordez.

- Ama gose naiz! -kexatu zen anai-arrebetako bat bere afaria jan eta gero.

- Sentitzen dut maitea baina daukagunarekin konformatu beharko zara. Eta gainera zure aitak gogor egiten du lan daukagun guztia lortzeko. Honez gain eskola oso garestia da guretzat eta ia ez zaigu dirurik geratzen arropa berria eta janaria erosteko. Eta orain denok ohera!

Yang-Lin ohera sartu zuen amak eta asmatutako ipuin bat kontatzen hasi zitzaion (ez zuten-eta ipuinik erosteko dirurik):

- Bazen behin bere gurasoen menpe bizi zen printze gazte eta dotore bat, oso alaia zen eta, batez ere, oso argia. Gaztelu handi eta eder batean bizi zen eta bertan ikasten zuen. Egun batean... - Ama isildu egin zen, semea lo seko zegoela ikusi baitzuen.

Yang-Lin-ek amets zoragarriak izaten zituen: mundu guztia "ikus" eta bidaiatzen zuela etab. Gau hartan Yang-Lin-en ametsa, betikoekin konparatuz, guztiz desberdina zen, bertan ahots leun eta eztioko neska zoragarri bat ikusi zuen -bere imaginazioan-. Zetazko kimono gorri bat zeukan, atzetik urre koloreko dragoi bat marraztua zuena. Kimono azpitik, baita ere, zetazko soineko urdin bat ikusi ahal izan zuen. Neska hura hitz egiten hasi zen lehen aipatutako ahots eztiatz:

- Ayame-Fu nauzu, osasunaren jainkosa, eta zuri laguntzera natorkizu. Lurra planetan ditudan mezulariek zure egoera zein den jakinarazi didate eta amets honen bidez gauza bat esango dizut: Wang-Fun-en dagoen iturriaren elezaharrak egia dio, bertako ur gardenetik bi trago luze edan, begiak pixka bat igurtzi eta ikusmena berreskuratuko duzu. Baina gogoratu hau: esnatzen bazara ni desagertu egingo naiz, ni pertsonen ametsetan bizi bainaiz. Beraz, nirekin egon nahi baldin baduzu, ametsetan egon beharko duzu. Egizu esandako guztia. Zorte on! Eta agur! - Eta amets hura egia zela ikus zezan, buruan zeukan gantxo bat burukoan utzi zion.

- Agur! Eta benetan, mila esker! - Erantzun zuen mutikoak.

Hurrengo goizean Yang-Lin-ek ametsean gertatutako guztia goitik behera aztertu zuen gantxoa eskuetan zuelarik. Orduan amari galdetu zion:

- Aizu amatxo, joan naiteke Shui-Low-ko iturrira? Mesedez...

- Ongi da baina esaiozu Xemin-Wai-ri laguntzeko.

- Xemin-Wai, Xemin-Wai! - Hots egin zuen Yang-Lin-ek - Amak esan du Shui-Low-ko iturrira laguntzeko, mesedez etor zaitetz nirekin! ...

- Zergatik joan behar ote dut nik beti? - Kexatu zen bestea. Ongi da, ongi da, joango naiz.





Azkenean Yang-Lin eta bere anaia iturrira heldu ziren eta Yang-Lin-ek, osasunaren jainkosak esan bezala, bertatik bi trago luze edan eta begjak igurtzi zituen. Bat batean, bere bizitzan lehenengo aldiz, koloreak agertuz joan ziren eta eguzki izpiek min egin zioten begietan. Ikusi egin zuen!

- Xemin-Wai, Xemin-Wai IKUSTEN DUT, IKUSTEN DUT. EGIA DA!

- Zer da egia? -galdetu zuen anaia.

- Iturriaren elezaharrak zioena! Bertatik edanez gero, zenuen gaixotasuna desagertu egiten zela.

Baina nola liteke? - Galdetu zuen Xemin-Wai-k.

- Etxean kontatuko dizut. Azkena etxera heltzen ipurterre! -eta korrika batean alde egin zuten biek etxera!





## ***Irati Areitioaurtena Hondartza***

Akzesita 11-12 urteko sailean  
Landako ikastetxea



## Harri handiko hondartza



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea

Duela urte asko, nik aukeratutako hondartzak harri handiak zituen eta jendea-ri ez zitaion gustatzen hara joatea. Hondartzaren ondoan bazegoen herri bat, *Basitze* izenekoa. Herri txikia zen eta mendi baten hegalean zegoen. Behean hondartza ikusten zen.

Uda zen eta bero handia egiten zuen. Herri horretan bazegoen neska bat Alaitz izenekoa eta, goizero, hitz hauek aipatzen zituen hondartzarantz begira:

- Oso gustura joango nintzateke hondartzara. Dagoen beroarekin oso ondo egongo nintzateke uretan, baina harri handi horiekin ezin da hurbildu ere egin.

Hori esanez, ordu laurden bat geratzen zen hondartzari begira gogo biziz, bere etxeko leihotik, bere ama etortzen zen arte. Amak hauxe esaten zion:

- Alaitz, gosaria prest dago! Zatoz gosaltzera bestela hoztu egingo zaizu. Hori esanda, sukaldean sartzen zen. Alaitz, bi minutu begira egon eta gosaltzera joaten zen.

Goiz batean, hondartzarantz begira zegoela, ideia bat izan zuen. Amarengana joan eta hauxe esan zion:

- Ama, gaur beranduago bazkalduko dut. Orain herriko laborategira noa ideia bat izan dudalako eta hangoei aurkeztu nahi diedalako.







julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea



Hori esanez, bizikleta hartu eta laborategira abiatu zen. Iritsi zenean, atea jo eta gizon bat atera zitzaion. Ile zuria zuen eta kopetan lupa bat zeraman. Alkandora zuri-zuria zeraman oinetaraino iristen zitzaiona. Horrela hitz egin zuen:

- Zer nahi duzu?

Alaitzek erantzun zion:

- Ideia bat bururatu zait hondartza politagoa jartzeko. Erloju bat egingo duzue. Baina areazkoa izan behar da eta 10 metro baino gehiago neurtu behar du.

Gizonak esan zion:

- Nahi baduzu egin dezakegu biharko. Bihar goizean etorri hona eta zuk esango diguzu non jarri.

Hurrengo goizean Alaitz oso azkar jaiki zen. Bizikleta hartu eta laborategirantz abiatu zen. Iritsi ahala erlojua ikusi zuen eta hondartzan jartzeko esan zien. Erlojua kamioi batek eraman zuen eta berak esandako tokian jarri zuten.

Herriko jendeak erlojua ikusi zuenean esan zuen:

- Ikusten duzue erloju hori? Oso polita da ezta? Alaitzek ideia ederra izan du.

Egunak pasa ziren eta erlojua oso ondo zebilen, baina herrian bazegoen mutil bat, gaiztakeriak egitea gustatzen zitzaiona, eta...

- Aspertuta nago. Ez dakit zer egin, eta... erlojua apurtzen badut? Gaiztakeria itzela izango litzateke.

Hori esanez, hondartzarantz joan eta erlojuari harriak botatzen hasi zen. Azkenean erlojua apurtu zuen eta are guztia hondartzara erori zen. Dena estali zuen eta harriak desagertu egin ziren, hondoratuta gelditu zirelako.

Herriko jendea eta Alaitz, hori ikustean, oso pozik jarri ziren eta handik aurrera hondartzara joaten hasi ziren. Mutila hori egiteaz damutu egin zen herriaren gustukoa izan zelako, baina denborarekin ulertu zuen egin zuenak ondorio ona ekarri zuela eta handik aurrera ez zituela gaiztakeriak egingo. Alaitz goraiatu zuen ideia hori edu-





kitzeagatik. Hain zuzen ere erlojua hondartzan jartzeagatik. Orain hondartza horrek fama handia hartu du eta bere ondoan dagoen herria oso pozik dago.





## **Nerea Aizpurua Iglesias**

Akzesita 11-12 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



# Kamiseta magikoa



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea

Bazen behin mutil bat Santxo izena zuena. Mutil hau gizen samarra zen eta horregatik bere lagun guztiek barre egiten zioten. Santxo oso pertsona ona zen, baina bere lagunak ez zioten kasurik egiten.

Honek pentsatzen zuen: "Nahiz eta gizona izan, ezin naiz pertsona on bat izan?". Gauero ohera sartzerakoan gauza bera galdetzen zion bere buruari eta gehienetan ezin izaten zuen lorik egin.

Santxok ez zien kasurik egiten bere lagunei. Lagunek pentsatzen zuten ez ziotela minik egiten, baina bai, min handia egiten zioten nahiz eta Santxoren aurpegia aldatu ez.

Jolastokira beti bakarrik irteten zen. Han ikusten zituen bere lagunak futbolean jolasten, saltoka eta algaraka, baina berak ez zuen jolasten bere lagunak barre egingo ziotela pentsatuz.

Etxera bueltan, amak esan zion ganbarara joateko aitonaren erloju zaharra topatzera. Santxok zapatilak eta motxila kendu eta amak esan ziona egitera joan zen. Santxo erlojua bilatzen hasi zen. Han iraun zuen hamabost minutu gutxi gora behera. Eskailerak jaitsi baino lehen, han topatu zuen ispilu zahar baten ondoan kaxa arraro bat. Santxo hurbildu



egin zen eta, kuriositateak jota, kaxa zabaldu zuen.

Izara mordoan azpian kamiseta polit eta zahar bat aurkitu zuen. Harrituta geratu zen ez zuelako inor ikusi kamiseta horrekin jantzita. Orduan Santxok kamiseta lurrean utzi, aitonaren erlojua hartu eta eskailera jaitsi zituen.

Kamiseta bere gelan utzi zuen amari ezer esan gabe eta sukaldera bueltatu zen aitonaren erlojua amari emateko.

Hurrengo egunean, Santxok kamiseta ipini zuen ikastolara joateko. Gosaltzera joan zenean amak esan zion:

-Baina nora zoaz kamiseta zahar horrekin? Ez al duzu kamiseta berriagorik? Tira, jar ezazu beste kamiseta bat, txukunagoa eta hobeagoa.

-Ongi da, ama -esan zuen.

Santxo bere logelara joan zen eta kamiseta erantzi zuen, baina eskolako motxilan sartu zuen, kamiseta horrek alaiago sentiarazten zuelako.

Eskolako bidean, Santxok kamiseta aldatu zuen.

Gelan denok egiten zioten barre bere kamisetari, baina oraingoan ez zion batere minik egiten besteek esandakoak, eta berak pentsatzen zuen: "Ez da izango kamiseta magikoa?"

Egunak aurrera zihoazen eta oso pozik zegoen Santxo. Berari oso arraroa iruditzen zitzaion. Kamiseta ipinita zeukanean oso pozik igarotzen zuen eguna, baina ez zeukanean jarrita, triste egoten zen.

Egun hartan Santxo beti bezala bakarrik irten zen jolastokira, baina oraingoan ez zen sentitzen txarto, oraingoan oso ondo sentitzen zen, paisaia ikusten...

Egunak, asteak eta hileak igaro ziren, baina aldaketa asko egon ziren Santxoren sentimenduetan.





Kurtsoa bukatu zen eta lagun guztiak piszinara joan ziren ospatze-  
ra. Santxo bakar-bakarrik eseri zen urki baten oinetan eta han gelditu zen,  
bere amonak oparitutako liburu bat irakurtzen. Bat batean, bi mutil hurbil-  
du ziren berarengana, beste gelako Patxi eta Peio, eta Patxik eta Peiok  
Santxori galdetu zioten:

- Aizu, Santxo, etorriko al zara gurekin urezko globoekin jolastera?

- Ni? Seguru niri galdetzen ari zaretela? Uste dut konfunditzen ari  
zaretela.

- Ezagutzen al duzu beste mutilen bat piszina honetan Santxo izena  
duena?

- Ez -esan zuen Santxok.

- Ba guk ere ez.

- Orduan, nor da mutil hori? -esan zuen Patxik.

- Ni? -galdetu zuen Santxok.

- Hori da, mutil, a zelako listoa zaren! -esan zuen Patxik.

Hirurok barreka hasi ziren.





- Orduan, bazatoz edo ez? Ea ba, anima zaitetz, mutil -esan zuen Peiok.

- Eeeee... baina ni oso lodi nago, ezin dut korrika egin, barre egingo didate eta...

- Eta? Nire aitak esaten duen moduan, "Ande yo caliente y riase la gente" -esan zuen Peiok.

- Ja, ja, ja -barre egin zuen Santxok.

- Orduan, bai, ezta?

- Bale!

- Santxo, ken ezazu kamiseta, busti egingo zara-eta!

- Bai!

Santxo ez zen konturatu kamiseta magikoa kendu zuela eta bereztako hori zela alai sentiarazten zuena.

Han ibili zen korrika eta bueltaka oso ondo pasatzen. Bat-batean bere gelako mutil harroputz bat bere ondora hurbildu zen eta esan zion:

- A zelako ipurdi eta tripa galanta!

Santxok pentsatu zuen kamiseta zuela, baina ez, ez zuen eta horrela erantzun zion:

- Begiratu al zara ispiluan? Guapoago zaude ahoa itxita daukazunean.

Mutila hori entzuterakoan korrika joan zen.

- Ikusten duzue? Nire kamisetak magia dauka.

- Ze kamiseta? -esan zuen Peiok.

- Aiba!! Ez daukat kamisetarik! Nik! Nik bakarrik esan dut, kamisetaren laguntzarik gabe!





- Bai, eta? -esan zuen Patxik.

- Ezer ez, oso istorio luzea da, beste momentu batean kontatuko dizuet. Aupa! Aupa!

Hortik aurrera, Santxok, bere kamisetaren laguntzarik gabe, lagun asko egin zituen, eta hauek aldatu egin zituzten Santxorekiko zituzten sentimenduak. Eta badakizue zer esaten zuten bere lagunek?

“Santxo lodi dago, eta zer?”





## **Idoia Aboitiz**

Irabazlea 15-16 urteko sailean  
Sagrado Corazón Ikastetxea



# ■ Termostatoa

Joseba Andoni Etxebarria Etxebarria Bilbon bizi zen gizon bat zen. Gizon handia eta zabala zen! 80 metroko altuera zuen eta 95 kilo pisatzen zituen. Ile kizkurra eta laburra zuen eta begi urdinak, eta hauek ziren bere emazteari gustatu zitzaion gauzetako bat. Oso gizon alaia eta lasaia zen. Bere emazteak 18 urte zituenean ezagutu zuen eta ordutik berarekin zegoen, eta maitasun historia honetatik bi alaba osatu ziren.

Joseba Andoni Etxebarria Etxebarriaren lanbidea parlamentuko tenperaturaren kontrola besterik ez zen. Bost urte zeramatzan, ofizioa ondo ikasirik, termostatoari begira. Eta ez uste. Zenbaitek zegokiona baino garrantzia handiagoa ematen zioten Joseba Andoni Etxebarria Etxebarriaren lanari. Askotan, tenperatura desegokia jarriz gero, erabakiak korrika eta presaka hartu ohi zituen parlamentuak, handik al bait arinen ateratzeko. Demokrazia ahul hura termostato faxista baten menpe bizi zela pentsatzen zuenik ere bazegoen. Baina ez jende gehiegik, zorionez.

Azaroko egun hartan, lo falta zuen Joseba Andoni Etxebarria Etxebarriak, bere alaba txikiaren asma zela-eta ospitalean pasatu behar izan baitzuen gaua. Erantzunik gabeko kezkek eta ospitaletako usain berezi horrek ez zion lorik hartzen utzi. Hurrengo eguna libre har zezan aholkatu zion bere emazteak, baina Joseba Andoni Etxebarria Etxebarriak eginbeharraren zentzu astun eta sendo bat zuen. Gainera, egun libreak agortu egin zitzaiz-



kion urriaren hasieran bere alaba zaharrenak hamaikagarren aldiz kolikoak jota ohean gelditu behar izan zuenean. Joseba Andoni Etxebarria Etxebarriak bere alaben osasun ahula madarikatu zuen une hartan, gosea kentzeko laranja bat jaten zuen bitartean.

Lo falta ez da normalean goizeko lehenengo orduetan nabaritzen. Alaba bere ohean sartu zuen, eta dutxa eta kafearen ondoren, esna aurkitzen zen Joseba Andoni Etxebarria Etxebarria parlamenturantz zeraman autobusa hartu zuenean. Bere umorea ez zen ez bereziki ona ez bereziki txarra.

Umorea zen soilik, beti bezala. Ezin esan termostatoaren aurrean hiperaktibo aurkitzen zenik, lanak ez baitzuen hiperaktibitatearekin zerikusirik. Zegokien botoiei eman, tenperatura 25 gradutara jarri eta egunkaria irakurtzeari ekin zion. Egunero egin ohi zuen bezala.

Estatuaren egoera tamalgarriaren berri ematen zuen egunkariak. Langabezia tasa altua, parlamentuak hartutako erabaki absurduak, ekonomiaren beherakada, prezioen igoera, unibertsitateetan emandako eztabaida ideologikoa (barkatu, ideologiarik gabeko eztabaida unibertsitarioa,...) Militarrek haserretzen hasiak ziren, eta zer esanik ez ezker erradikaleko buru iraultzaileak. Gutxi batzuk sinesten zuten demokrazia ustel hartan. Eta horietariko bat, Joseba Andoni Etxebarria Etxebarria. Arrazoi praktikoengatik bakarrik baldin bazen ere, berak demokraziarengan zuen fedea mantendu behar zuen itsu-itsu. Bere soldata demokraziari zor zion eta horregatik borrokatzeko prest egongo zen edozein unetan. Parlamentuko argiak piztu eta telefono deiak erantzuten zituzten pertsona haiek bezala.

Otsaileko egun hotz bat zen hura, ez zegoen zalantzarik. Bufanda eta eskularruak jantzirik iritsi ziren parlamentarioak. Ekonomia ministroa batez ere, denegatik eza-guna baitzen katarro eta ezkutatu beharreko finantza eragiketa susmagarrienganako joera. Horregatik ez zen inor harritzen txapel batek ia aurpegi osoa estaltzen ziola ikustean. Zerbait lapurtu berria izango zuen.

Eguerdiko 12:37tan parlamentuko eztabaida oso beroa zen. Oihuak entzuten ziren gobernu, oposizio eta talde politiko txiki periferikoen artean. Ez zegoen aurrekontuak onartzeko modurik. Komunak garbitzen zenbiltzanak tapoiak jarri zituzten belarrietan, hura jasanezina baitzen eta aldameneko garbitzaileak eskaini zezakeen solasaldia ez zen





askoz ere hobea. Giro nahastu hura omen zen demokrazia. Tira-birak osasuntsu jarraitzen zuela esan nahi zuen, eta Estatuak, gizarteak, eta munduak zoriontsu lo egiteko arrazoi guztia zuten horregatik.

Baina ez Joseba Andoni Etxebarria Etxebarriak. Berak, bere erosotasunerako, termostatoaren urruneko kontrol bat zuen mahaiaren gainean. Ordura arte egunkari pisu-gabeak estalitako kontrol horren gainean bere burua zegoen, seko lo. Lo sakon eta goxo bat. Ez zegoen amets originalik buru hartan. Telebistako lehiaketaren batean “basurde” erantzuteagatik (galdera zein izango zen oraindik deskubritzeke dago), kokondoz beteriko uharte batean aberats bizi zen, hogeita lau orduz bertako emakume ederrek txirrindularitzan irabazle direnei bezala masailak musukatzen zizkiotelarik. Etxebarria andrearen amorrurako, noski. Esan bezala, Joseba Andoni Etxebarria Etxebarria ez zen ametsetan ere originala izateko gai. Horretarako Ekonomia ministroa zegoen. Hong Kong-eko bankuetako leihatiletako neskakten bahiketarekin egiten baitzuen amets Ekonomiako ministroak. Asmatu zergatik.

Kronikek diotenez, Joseba Andoni Etxebarria Etxebarria tenperatura igotzeko botoiaren gainean jarri zuen burua, parlamentuko beroa ideiatu diren termometro maila guztietatik kanpo igotzeko moduan. Orduan, egoera larrietan eta gauzak okertzeko beti gertatu ohi den bezala, kortozirkuitu bat egin zen hor nonbait. Parlamentariak gorbatak



askatzen hasi ziren, guztiak Ekonomia ministroa ezik, katarro eta finantza eragiketa susmagarrienganako joera horregatik. Askatu zituzten alkandora botoiak ez zitzaizkien nahi-koak iruditu eta eztabaidaren berotasunari errua botaz, saioa amaitutzat ematea erabaki zuten parlamentuko presidentek.

Ezker hegoa -nola ez, eskuinak beti diru gehiago izan du gauza hauetarako erre-erretzen ari zen dagoeneko kortozirkuituaren ondorioz. Parlamentariak emakume eta gizon ikasiak dira, baina ez larrialdietan oso iaioak. Beroien artean ez zuten talka beste-rik egiten irtenbidea aurkitu nahian. Izaera politikoaren isla paregabea.

Segurtasunekoak tabernan zeuden hamabitakoa hartzen (aurretik hamarretakoa eta hamaiketakoa irentsi ondoren), eta ez zegoen inor beren postuan. Hain soldata baxuekin ezin esfortzu berezirik eskatu. Tabernak osaturiko mikroklima koipetsuak eraiki-naren beste aldean gertatzen ari zenetik kanpo uzten zituen.

Beraz, laburbilduz, panorama halakoxea zen:

Joseba Andoni Etxebarria Etxebarria termostatoa kontrolatzen zuten botoien gai-nean lo zegoen. Kortozirkuituak sortutako sua pixkanaka parlamente osora zabaltzen ari zen (tabernara ezik, mikroklima koipetsua dela-eta), eta parlamentariak ez ziren ate bate-tik irteteko ere ados jartzen. Kanpoan itxaroten ari ziren kazetariak (denak Ekonomia ministroari eskandalu berri bati buruz galdetzeko zain, noski) sua ikusi zutenean, hura sei-nale bat zela pentsatu zuten. Azkeneko hilabetetan isilean prestatzen ari zen iraultzaren seinalea, eta hola zabaldu zuten, zuzenean eta mundu osorako, beraien komunikabidee-tan. Ezaguna da kazetariak datuak baieztatzeko duten arazoa.

Telebistan irudi haiek ikustean, militarrek azkenean Estatu kolpearen eguna iri-tsi zela ulertu eta uniformeek hautsa kendu zieten. Tankeak ateratzeko gogoa zuen nor-baitek agindua eman zuen, inolako zilegitasunik gabe. Tankeek hiribideak bete zituzten hala ere, militarrek oso gustuko dituztelako botere erakustaldi hauek.

Sindikatuak azkenean herriak boterea hartzeko eguna heldu zela esan zuten (sindikatuak hori esateko nor diren zalantzan jartzen da oraindik). Eta, tanke faltan, ezker erradikalak beti izan ditu gustuko harriak eta barrikadak. Aurrekontu laburreko beste







Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea

Estatu kolpe bat eman nahian. Eta honela gertatu zen, komunikabideek eragindako harrikadaz beteriko iraultza bat egon zela alde batetik, eta bestetik, militarren Estatu kolpeak tankeak atera zituela kalera. Wimbledon-eko finala balitz bezala.

Herri xeheak gobernu buruaren berri izan nahi zuen, baino nahiko lan bazuen honek, parlamentuko presidentearekin batera kaosean orden pixka bat jartzen. Eta erantzunik jaso ezean, herri xehearen kezka etorkizunerantz zuzendu zen. Ez zen inor gogoratu parlamentuan kiskaltzen ari ziren parlamentariekin, ez tabernako mikrokliman babes-ten ziren segurtasuneko langileekin, ez termostatoaren kontrolaren gainean lo hartu zuen Joseba Andoni Etxebarria Etxebarriarekin ere.

Parlamentuko tenperaturaren arduradun arrunt honi, kokondoekin amets egiten zuen bitartean, ez zitzaion inolaz ere bururatu, Estatua astebeteko kaosean murgildu ondoren, bere emazteak eta alaba kolikodun eta asmatikoak 37 urtez jasan behar izango zutenik erregimen militar bat.

Honelakoak dira demokraziak.





**Ianire Gomez de Segura**

Akzesita 15-16 urteko sailean  
Sagrado Corazón Ikastetxea



# Eguneroko Eguneroko



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea

## Irailak 23

Autobuseko aulki hauek benetan deserosoak dira. Fakultatera joateko egunero-ko bidaia aspergarria burutzen dudan bitartean, leihotik, “salida de socorro” hitzen atzetik, jendea presaka dabil. Goizeko sei eta erdiak besterik ez izan arren, kale ilunak jendeztaturik daude. Gustura jakingo nuke zigarroa hortzetan daraman emakume lerden hori zertan pentsatzen ari den. Eta agure hori? Nora ote doa? Egunkaria eta ogia eroatera ziu-rrenik. Jendea azkar pasatzen da nire begien aurrean, ala azkar pasatzen dena neu naiz? Geltokiko bikoteaz gogoratzen naiz. Benetan maite ote dute elkar? Moto bat bizkor igarotzen da autobusaren ezkerraldetik. Aritzeekin gogoratu naiz bat-batean. Atsegin dut mototan bere gerrri zabalari helduta bidaiatzea. Bat-batean abesti aski ezaguna entzuten da irratitik ... “Begiak itxi eta desagertu nahi nuke eta inork nire falta sumatzen duen jakin .....” Abesti honek beti pentsakor jartzen nau. Inor ohartuko al litzateke hemen ez banengo? Gurasoek nahiago lukete horrela balitz. Eta lagunak? Lagunik ez badut, ezin konturatuko dira. Baina Aritz bai. Aritz konturatuko litzateke. Asko maite dut. Berarekin egon nahi nuke. Soilik bera eta ni, inoren begiradarik gabe. Baina herri “puta” honetan ezinezkoa da. Bilbo bezalako hiri batean biziko bagina ez litzateke halakorik izango. Hemen jendea paseatzen dabil, ez dutela arazorik dirudi, baina 325 biztanleko herrixka batean dena da ezberdina.



## Irailak 25

Gaur, Aritz eta biok, herritik bostehun bat metrora dagoen basotxo batera joan gara. Oso toki polita da. Zuhaitz asko egon arren, hauek ez dute eguzki izpien sarrera oztopatzen. Paisaia zoragarria da, batik bat udazkenean. Mila kolore nahasten dira zerua eta lurraren bitartean. Eroritako enbor baten gainean eseri gara eskutik helduta. Hotz egiten du. Gauden lekutik ez da motoa ikusten, asko urrundu gara bidexkatik. Haize hotzak bortitz astintzen ditu hostoak eta hauek adarrei eutsi ezinik lurrera erortzen dira. Bi txanxangorri pausatu dira adarretako batean, beraiek ere maiteminduta dirudite. Aritzi begiratu diot orduan, isilik dago. Begirada lurreko geruza gorrian finko du eta helduta diodan eskua, etengabe mugitzen du. Kezkaturik dirudi. Hitzik egin gabe besarkatu nau. Denboraldi luze batean egon gara biok besarkatuta, ezertxo ere esan gabe. Ondoren, maite nauela errepikatu dit behin eta berriz. Gure ezpainak elkartzean, hotzikara batek zeharkatu nau, soinean neraman nikia erazten zidan bitartean. Iluntzerako etxera itzuli gara. Geroago zinemara joatea erabaki dugu, film ona omen dago. Agurtzean, musu bizkor bat pausatu dit ezpainetan eta “gero arte” esanez motoan urrundu da.

## Urriak 7

Gaurkoan hondartzan izan gara paseatzen. Laino ilunek zerua estali arren, itsasertzean ez gara horretaz ohartu ere egin. Bikote gehiago ere bazebiltzan goxo eskutik helduta. Ustekabean, olatutxo bat apurtu zaigu hanka artean. Oinetakoak blai eginda gelditu zaizkigu bioi. Barreari eutsi ezinik, hondar gainean eseri gara. Zaharkituriko emakume bat pasatu zaigu albotik. Begirik kendu gabe ibili da paseatzen denboraldi luzez, gure maitasuna ulertezina egingo balitzaio bezala. Badakit horrelakoetan Aritz urduri jartzen dela. Lasaitzeko edo, musu azkar bat eman diot masaillean, baina nire harridurarako “Hemen ez!” bortitz batekin erantzun dit.

Denboraldi luze batean zer esan ez nekiela gelditu naiz. Negarrari eman nahi izan diot, baina ez dut horrelakorik egin. Ez dut ulertzen ia zortzi hilabete elkarrekin ibili ondoren, nolatan axola zaion horrenbeste besteek gutaz pentsatzen dutena. Itsasoari begira gelditu naiz. Udazkenean itsasoak haserre dirudi. Uhinek jostari dantzatzen dute





Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea

itsas azalean. Duela urte batzuk mutu gelditutako portua ilun ikusten da hodei lodien azpian. Izarren paradisuak Van Gogh-en pinturetako bat dirudi, koloreak elkarrekin baina nahastu gabe, arte eskolan ikasi nuen bezala.

Eguzkia zerutik erortzearekin batera altxatu gara. Afaltzera joatea proposatu dit ahots geldoz. Buruarekin baiezkoa eman diot. Jatetxerako bidean ez dugu hitzik ere egin eta egoera hau jasanezina egiten zait. Afaltzean ez dugu hondartzan gertatutakoa aipatu ere egin.

## Urriak 16

Gaur Aritzen dei bat jaso dut eta bere etxera joateko eskatu dit. Urduri zirudien, horregatik denborarik galdu gabe irten naiz etxetik. Zerbait larria gertatu ote zaion galde-tu diot neure buruari. Euria ari du. Ateko txirrina jo bezain laster agertu da Aritz. Zurbil dago eta begiak malkoz beteak ditu. Argi dago negar egin duena. Horrek asko kezkatu nau, Aritz ez baita edozer txorakeriagatik negar egiten duen horietakoa. Ezer esateko astirik izan gabe besarkatu nau. Logelaraino zuzendu nau eta ohe ertzean eseri gara biok eskutik gogor helduta. Negarrari eman dio eta bere malkoek nire sorbalda gainetik irrist egin dute, euri tantek leihoan egiten duten bezala. Lasaitu denean mahaiko kaxoitxo zabaldu eta gutun bat luzatu dit. Kartazalean ez dago ezertxo ere idatzita. Kontu handiz zabaldu dut eta boligrafo urdinez idatziriko orri koadrikulatu bat atera dut bertatik. “Herriaren lotsagarri zarete. Ez zaituztegu hemen nahi”. Lehenago ere heriotza mehatxuak jaso dituela esan dit. Zeharo harrituta gelditu naiz paper zatia eskuan nuela. Lehenago zergatik ez didan ezer esan galdetu diot. Lurrera begira gelditu da unetxo batez, gero erantzun dit: “Ez nuen uste ezer serioa zenik. Norbait txantxetan ibiliko zela uste nuen, baina badirudi ez dela horrela. Agian hemendik alde egitea izango dut onena”. Horrelakorik ez pentsatzeko esan diot eta Ertzaintzarekin hitz egitea proposatu diot. “Badakizu legeak ere ez gaituela gogoko” erantzun dit, eta zoritxarrez arrazoia du. Logelako hormetan pausatu dut begirada, ordura arte ez nintzen ohartu gure argazkiz joserik daudela. Iruñean izan ginenekoak, Mallorkara bidaiakoak, Igeldokoak... Lasaitzeko esan diot eta berriro horrelakorik gertatzen bada, Ertzaintzara joko dugula erabaki dugu.





## Urriak 22

Gaur ospitaletik dei bat jaso dut. Aritz bertan dagoela esan didate, baina ez didate gauza askorik argitu. Berehala ospitalerako bidea hartu dut. Oso kezkatuik nago, ez baitakit zer gertatu zaion, baina ez da zaila suposatzen, mehatxu haien ondorioz. Bertara iristean oker nenbilela ohartu naiz. Motorreko istripua izan du, antza. Ez du ezer larririk ordea, ubeldura batzuk soilik. Motorra, ostera, kamioiaren azpian gelditu omen da guztiz txikituta. Eskutik heldu dit eta beldurturik dagoela esan dit, medikuek ez baitiote esan zer gertatu zaion. Nik ez duela ezer larririk zin egin diot eta bekokia musutxo bat eman diot. Ondoren loak hartu du eta esnatu bitartean bere ondoan egon naiz irratitxo kaskar bateko baladak entzuten.

## Azaroak 2

Ertzaintzaren deia jaso dut gaurkoan. Herri ondoko basotxoan gorpu bat aurkitu dutela esan didate eta Aritz izan daitekeelakoan daude. Ezin dela bera izan esan diet, atzo bertan egon nintzela berarekin ere komentatu diet. Baina badaezpada ere joateko esan didate. Bertara iritsi naizenean ezin izan dut ikusitakoa sinetsi. 23 urteko mutil beltzaran baten gorpua, euriak bustitako udazkeneko hostoen gainean etzanda dago.



Aurpegia odolduta du eta galtzak belau azpitik ditu. Nik oparitutako galtzak, hain zuzen ere. Euriak bustitako ile luzea aurpegia besarkatzen saiatzen da, baina ez da begirada galdu hori estaltzeko gai. Zuhaitzetako hostoak gorpu gainean erortzen jarraitzen dute, nire malkoen antzera. Garrasi bat egingo nukeen, baina nire eztarrian ito da. Ez naiz zutik egoteko gauza eta eroritako enbor gainean eseri naiz burua belau artean sartuta. Elkarrekin igarotako bederlatzi hilabeteak gogoratu ditut minutu gutxi batzuetan. Ertzainetako batek bere lepokoa luzatu dit. “Agian zuk gorde nahiko duzula pentsatu dut” esan dit eta urrundu egin da ni gorpuarekin bakarrik utzita. Aritz izena urrez marraztutako pergamino itxurako lepokoa esku artean dudalarik azkeneko musua ematea desiratzen dut. Ezpainak zuri ditu eta gibel inguruko labankadei oraindik odola darie. Begiak itxi eta bere ezpainak nireen artean estutzen ditut azken aldiz.

#### Azaroak 4

Bi egun pasatu dira Aritz hil zenetik. Ezin ditut mina, gorrotoa eta nahigabea jasan. Honekin guztiarekin behin betiko amaitu nahi nuke eta pertsonen sentimenduek inporta ez duten leku batera joan, Aritzen ondora, betiko. Baina ez, beragatik geldituko naiz hemen, lotsa gabe, harro, gure sentimenduez eta batez ere gure maitasuna zena eta bortitz lapurtu digutena defendatzeko. Oraindik gogoan dut, duela bi egun gorpu bat basoan, euripean, zurbil zegoen leku berean, hilabete batzuk lehenago nola bi pertsonak elkar maitatu zuten. Ez dut inoiz egun hura ahaztuko, ez bizi naizen artean behintzat. Ezta bere ezpainek nire belarrietara hurbiltzean esandakoa ere: “Maite haut, Josu”.





**Julene Idoate Legorburu**

Irabazlea 17-18 urteko sailean



## Zergatik? Hargatik



San Martin egun honetako ekiak bidalitako lehen printzek esnatu naute, udazkenean noizbehinka suertatzen diren egun epel eta goxoetako batean. Bakarrik nago, lau pareten artean. Hori izan da azken gogoeta hau burutzeraz bultzatu nauen aitzakia.

Dagoeneko badira hiru urte presondegi honetan nagoela. Ez naiz gustura sentitzen, baina ezin esan dezaket hemen jasotzen dudana tratua ona ez denik.

Aspaldi batean, aske bizi nintzen, askatasun osoz, askatasun osoan nire lau neba-arreba eta amarekin batera. Bizkaiko herri txiki batean bizi ginen, Arrazolan hain zuzen, euskal mitologian hain esanguratsua den Anboto mendiaren magalean. Gure bizilekutik, lehen argi printzak ikusi ahala azaltzen zitzaizkigun goizero begien aurrean Memaia, Anboto, Udalatx, eta Alluitz. Gaur egun jende askok baserriak zikinak eta deserosoak direla uste du, baina uste ustel hau alboratuta, esan beharra daukat gurea guztiz bestelakoa zela: ikusgarria zen. Handia, txukuna, eta ondo zainduta zegoen. Etxearen eskuinetara, ortu handiak okupatzen zuen hesiz inguratutako lur-eremu zabala; ezkerrean ordea, belardi txiki bat zegoen animalia batzuen atsedean leku gisa; eta etxe ostean, ez dakit zer zegoen, ez bainintzen inoiz bertan izan.

Pozik bizi ginen etxalde hartan. Goizero, oilarraren kukurrukuak esnatzen gintuen, baina beste lau neba-arrebak eta bostok, beste egin beharrik ez eta etzanda gera-





tzen ginen bazkal ordurarte. Orduantxe etortzen zen ama gure bazkaria bere baitan zekarrela. Gustura bazkaltzen genuen bostok batera, baina batak besteari kasu zipitzik egin gabe, bakoitza berera. Jardunean gustura ginela, nagusia agertzen zen eta ama gure bistatik eramaten zuen, baina inoiz ez dut jakin nora eramaten zuen egunero, gehien gustatzen zitzaiguna egiten ari ginenean hain zuzen.

Gogoan dut nola udazkeneko egunsenti gris eta triste batean, esnatzeaz batera konturatu ginen *Txato* (izen hori jarri zioten bere sudurmotza zela eta), nebarik zaharrena, ez zela gure ondoan. Berehala harritu ginen guztiok, baina ordurako ama, bere bila ari zen. Etxe osoan bilatu genuen baina ezer ere aurkitu ez. Ama berehala jabetu zen gertatzen zenaz baina, guri ezer esan gabe kantoi batean etzan zen goibel-goibel. Ondorengo egunak triste samar pasa genituen, baina amak lasai egoteko adierazten zigunez, pixkanaka tristura pasa zitzaigun eta antzinako garai zorionsuetara itzuli ginen. Udazken goibela pasa zen, baita negu zuria ere. Zuria benetan urte hartako negua! Aspaldian ez zuen horrelako elur jasarik bota. Ordu gehienak lotan pasa genituen eta horrela ez zenetan, denak ondoan, hurbil-hurbil, hotzari aurre egin nahian. Laster etorriko zen baina udaberria, eta berarekin batera, baita alaitasuna ere.

Uda pasa eta udazkenean sartu ginen ia konturatu ere egin gabe. Urte bete igo-roa zen neba desagertu zenetik. Hara nola egun horietako batean esnatu eta *Zipi*, nire ahizpa, ere ez zegoela konturatu ginen. Neba-arrebok, aurreko desagertzean baino beldur, harridura eta tristura askoz handiagoa sentitu genuen. Bigarrena zen! Guk ezin genuen sinetsi, baina amak ordea, ez zirudien, ez beldurtuta, ezta harrituta ere, bai ordea, tristetuta. *Txato* joan zitzaigun egunean etzaten zen kantoi berean etzan zen oraingoan ere, gertatzen ari zena ulertuko balu bezala. Honi buruz amari ezin izan genion ezer galdetu, ezin izan genuen.

Ordutik aurrera ez ziren gauzak lehen bezalakoak izan. Ez ginen hain zorionsu bizi. Ama goibelduaren ahotik ez zen irribarre bakar bat bera ere ateratzen eta nagusia ere ez zitzaigun lehen bezain bestetan gure etxean agertzen.

Urte batzuk geroago baina, *Zipi* desagertu zen garai berean, nire bizitzatik kendu zizkidaten geratzen zitzaizkidan neba biak. Gero eta harrituago eta beldurtuago





nengoen ni, baina hala ere amari ezer galdetzeko ahalmenik gabe. Oso triste bizi izan ginen ordutik aurrera ama eta biok, bakarrik. Jateari utzi nion, jada ez nuen bizitzeko bate-re ilusiorik, nire neba-arrebei gertatu zitzaien igarkizunarekin bizi nintzen eta. Ez nintzen nire txokotik ezertarako mugitzen. Jan, justu-justu jaten nuen beharrezkoa. Amak ez zidan kasurik egiten. Horrela, hotz ikaragarria egiten zuen arratsalde batean, nagusiak gure etxetik atera eta kamioi batean sartu ninduen. Ordu erdi eskaseko bidaiaren ostean, kamioi-tik jaitsi eta baserri ikaragarri bat antzeman nuen nire begien aurrean. Beste etxe batera sartu ninduten.

Bertan jarraitzen dut oraindik. Seme-alabak ere izan nituen, amak bezalaxe. Zortzi hain zuzen. Ama izatearen poztasun eta zoriontasun hark, bizitza beste era batera ikustera behartu edo bultzatu ninduen, beste begi batzuekin. Jabetu nintzen bizitzaren eta gizakien krudeltasunaz.

Hori duela hiru urte izan zen. Orain badakit zer den San Martin eguna. Badakit zergatik desagertzen ziren nire neba-arrebak, badakit orain ere zergatik kentzen didaten urtero seme-alabaren bat. Gaur, azkar esnatu naiz, nire semeari azken agurra emateko.





**Jon Aiestui**

Irabazlea 18 urtetik gorako sailean



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea



# ■ Zazpi egun Martarik gabe



### **Labana**

Begiak itxi zituen. Zabaldu zituenean, labanak bere eskuturraren gainean segitzen zuen.

Ez da ausartu ispiluari begiratzen. Labana eusten zuen eskuak dardar egiten dio. Besteak ere bai. Eskuturretik labana aldendu, pittinka jaso, ezerekin ukitu gabe, eta ipini du konketaren gainean. Orduan bere aurpegia ikusi du ispiluan. Ez dago negarrez. Berak beti uste izan zuen halakoetan negar egiten zela. Baina, antza, nahiko negar eginda dago aurreko hilabeteetan.

Irribarre egin dio ispiluari.

Ispilukoa negarrez hasi da.

### **Goikoa**

Goikoak neskaren negarra entzun du komunetik. Hiru negar-zotinka baino ez dira izan. Lehenengoa, minduena eta baxuena. Bigarrena, tupustean. Hirugarrena lantu bezala hasi da eta lantu bezala segitu du, nota bati eutsiaz. Ondoren, beheko neskak dutxari eman dio.

Goikoak badaki zer den dutxari ematea lurrean jantzita egonda. Bi aldiz daki.

Goikoak irratia piztu du. John Lennon eta Paul McCartney irten dira. Batak oihu egiten du eta besteak notari eusten dio.

### **Bainugelako atean**

Neskak labana sartu du jertsearen azpitik. Zintzilik dagoen toalla batean aurpegia garbitu, eta entzuten jarri da. Bi oihartzun iristen dira: atearen beste aldean, norbait plastikozko objektuak apurtzen ari da; goian, berriz, Paul McCartneyren bigarren kontzertuaz ari dira hitz egiten irratian. Neskak zabaldu egin du atea.

Zalapatatik urrundu da, atzerantz begiratu gabe. Bere logelarantz doa. Iritsi da atera. Itxita dago. Ez da zabalitzen. Zarata datorren lekura begiratu, eta handik berehala zarata eten egiten da. Sala isil-isilik geratu da. Orain pausu bat entzun da. Pasillorantz dator.

Neska apartamenduko atera abiatu da presaka. Ez da zabalitzen. Itxita dago. Berriz saiatu da. Ez, oraingoan zabaldu egin da. Bi pausoan kanpoan da.

Goikoak entzun du eskaileretan norbait korrika jaisten. Segituan, apartamenduko atearen daunba entzun du. Ondoren, neskaren saltoak eskaileretan behera.

### **Lehen eguna Martarik gabe**

Goikoak ez du irratia egun osoan ipini. Berandu hartu zuen lo, goiz jaiki da eta berandu doa ohera. Eguerdian, gutunontzia ikustera jaitsi denean, beheko gizona sentitu du bere apartamendutik irtetean. Zain geratu zaio, gutunontzia hustu bitartean.

Gizona apur bat jaitsi da eskaileretan. Bet-betan, geratu egin da. Gora egin du eta apartamenduan sartu da berriz.

Goikoak gutunontzia itxi, eta ogia eroatera joan da.

### **Bigarren eguna Martarik gabe**

Goikoak irratia ipini barik eduki du. Irakurtzen eman du egun gehiena, etxeko ate guztiak zabalik zituela. Hogei komiki irakurri ditu, edo bi aldiz hamar. Ez du zaratarik entzun behean. Gizona komunean eta gizona frigorifikoa, besterik ez.

Gizona oheratu denean, bera iratzarrita geratu da.

### **Hirugarren egunean**

Telefonoa joka hasi da beheko apartamenduan. Gizonak hartu egin du. Ahots goxoa du; aita baten bezalakoa, alaba bati beldurrik ez izateko esaten. Luze egon dira telefonoan. Noizbehinka, gizonak Bai esaten du, edo Noski, edo Laztana. Gero txilioka hasi da.





Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea

Arratsaldeko seietan, goikoa leihoan dago jarrita, eta neska ikusi du auto bate-tik jaisten. Harekin beste bi neska datoz.

Keinua egin dio leihotik. Neskak itzuli egin dio, eskuko hatzak airean pianotuz, eta portaleko atera joan da. Ondoren, goikoak leihoa utzi du, Bach-en musika ipini du goi-fidelitatezko katean, eta kontrabaxuaren notak segitu ditu, airean hatzak pianotuz.

Gero atera joan da entzutera.

### **Ez esan ezer ere**

Moztu du neskak. Kendu paretik. Nire gauzak hartzera nator.

Sesioa egon da. Beste bi neskek ere ozenki hitz egin dute. Halako batean, gizo-nak bazihoala esan, apartamentuan sartu, eta gela bateko atea daunba itxi du.

Lapiko hotsa egon da, zabor poltsak zabaldu dira, kartoiak jaitسي dira eskaileretatik.

### **Laugarren eguna Martarik gabe**

Goikoa musika ipinita egon da eguerdira arte. Eguerdian, gutunontzia ikustera jaitسي denean, ohartxo bat aurkitu du eskuz izkiriatua.

Beheko apartamendukoa naiz. Barkatu iskanbilak. Gauza bat eskatu behar nizun. Nik helbide berria eduki arte, nire izenean datorren posta galdu egingo da ziur aski, ez galdetu zergatik. Postariari separatzeko eskatu ahal bazenien, benetan estimatuko nizuke. Aurretik mila esker, Marta.

Naiz. Barkatu. Eskatu. Eduki. Galdu. Galdetu. Eskatu. Estimatu.

Ni naiz. Zuk barkatu. Nik eskatu. Nik eduki. Hura galdu. Zuk galdetu. Nik eska-tu. Nik estimatu.

Goikoak eskaileretarantz begiratu du eta ogia eroatera joan da.

### **Larunbata Martarik gabe**

Hamaiketan, postariaren zain tinkatu da leihoan. Hamaika eta erdietan, neska agertu da kantoiko izkinan. Goikoak itxoiteko egin dio besoaz. Itxi du leihoa eta gutunon-tziraino jaitسي da.

Postaria ez da hamabi eta erdiak arte pasa. Ez du arazorik ipini. Ohartxo leitu du, eta bi gutun eman dizkio. Hurrengoan goikoaren ontzian utziko ditu. Horren kargu har-tzen du. Gero joan egin da.





Goikoa, bere postala irakurri ondoren, kalera irten da. Kantoiko izkinan ez da inor ageri. Zigarroa iziotu du. Begiratu du atzerantz, eta gizona ikusi du leihoan jarrita. Ikusi duenean berari begira zegoen, eta fabxadako beste leihoei so egin dienean berari begira dago.

Miatu du kalean, kafetegian, dendetan, gutun biak eskuan dituela. Etxera joan da. Leihoa zabaldu du. Beso-ukalondoak kokatu ditu markoan.

Bi gizon bi leihotik kalera begira.

### **Igandea**

Gutunak ez daude beraren logelan. Leihoa hutsik dago. Goikoa kalera irten da, gizona etxetik irteten sentitu ondoren. Igandea da kaleetan. Ez dabil inor. Zaila da gizonari segika egitea. Zapaten oihartzuna jarraitu behar du, kalerik kantoi. Halako batean, zapaten hotsa geratu egin da.

### **Bitartean**

Neskak bebarruko atea zabaldu du. Bigarren solairuraino igo da, eta hirugarrenera segitu du. Goikoaren atean jo du. Birritan jotzen du. Hiru bider.

Oharra pasa dio ate azpitik eta joan doa.

Itxoin hemen bihar 15:00tan. Ordu horretan nire gizona etxetik irtengo da, nirekin kafe bat hartzera metro estaziotik gertu.



### **Bueltatu da goikoa etxera**

Bueltatu da goikoa etxera. Atea ireki orduko, oharrarekin egin du trikitx.

Itxoin hemen bihar 15:00tan. Itxoin. Ordu. Gizon. Etxe. Irten. 'Ni' hitza gehiago agertzen da, besteak baino.

Nire. Eta Nirekin.

### **Zazpi egun Martarik gabe**

Goiz esnatu da goikoa. Arratsaldeko hirurak izateko bost minutu falta direla, telefonoa joka hasi da behean. Txilioak entzun dira eta hainbat hitz ere bai. Behekoak apartamendutik irten du.

Hiruretan, atean jo dute. Marta da.

Posta jasotzera dator.

Goikoak gutun biak eman dizkio. Ongi zaude?, galdetu dio, posta eman ez bat.

Bai, erantzun du Martak. Dena ongi doa, lagunei esker. Ez da erraza, baina ongi doa. Eskerrik asko galdetzeagatik.

Askotan ematen zenion dutxari jantzirik, esan dio goikoak. Nik ere badakit zer den hori.

Neskak irribarre egin du. Isilik geratu da, lekuan zutik. Gero esan du:

Pierre edozein astakeria egiteko gauza da. Edaten duenean eta ez duenean edaten. Kontuz ibili.

Goikoa ere zutik geratu da.

Ez da ausartuko agure bat jotzen, esan du lurrera begira.

Martak gutun biak erakutsi ditu airean, lurrera begiratz. Ondoren esan du: Joan egin behar dut. Hurrengo posta gaur zortzi emango bazenit, estimatuko nizuke. Estazioko kafetegian gera gintezke, ordu honetan. Gero ez dut uste karta gehiago etorriko denik. Eskerrik asko. Agur.

Gero joan doa.

### **Estazioko kafetegian**

Marta iritsi denerako, goikoa kafea hartuta dago. Zer moduz astea? Ondo. Gutunak eman dizkio. Hiru dira, besterik ez. Diru kontuak, hirurak.





Goikoak kafe batera gonbidatu du. Pierri buruz hitz egiten dute, erruaz, erruduntasunaz, bizi aldatzeaz, gaztetasunaz, edadeaz eta arnasa hartzeaz. Gero Martak esan du joan beharra duela. Esan du hurrengo igandean beste kafe bat har lezaketela, gura izanez gero.

Ez dut beste egitekorik, esan du goikoak.

Marta joan egin da. Goikoak kafe biak ordaindu ditu. Ondoren, beste kafe bat ekartzeko eskatu dio zerbitzariari.





**Josu Waliño**

Aipamen berezia 18 urtetik gorako sailean



## Bihotz gorriak



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea

Egunero jartzen zion otarrean zelaietan aurkitutako marrubirik ederrena.

Beste inor baino lehenago jaikitzen zen goizean, horretarako. Lehen eguzki izpien bakardadeaz zelaiak zeharkatu, eta marrubi guztien artean ederrena bilatzen zuen.

Odolaren kolorekoa.

Eta bihotz baten itxurakoa.

Egunero aurkitzen zuen horrelako marrubia, eta egunero jartzen zion otarrean beste inor jaiki baino lehenago.

Uda osoa igaro zuen lanean, Frantziako zelai berdeetan marrubi gorriak biltzen amaren ondoan. Eta beraiekin, mundu guztitik lanera etorritako beste hainbat familia, txindurrien moduan, udan bildu nahian negua igarotzen lagunduko zien diru apurra.

Eta han, bihotzen antzeko marrubi artean, maitemindu zen lehen aldiz. Ez zen neska polita, baina bere tristuraren begiradak gorritu zion bihotza. Lanean topatu zuten elkar, eta lanean begiratu zuten elkar.

Tristuraz neskak.

Maitasunez berak.

Eta lanean jarraitu zuten.

Baina neskaren tristura bihotzean geratu zitzaion, eta marrubiek maitasunaren kolorea gorria zela esan zioten.



Eta berak, sentimenduak adierazteko hizkuntza baten faltan, bere bihotza ematen zion egunero.

Marrubi baten itxurako bihotza.

Ama batek ezagutzen du semearen bihotza.

Ezagutzen zuen berak ere maitemina kolorea, eta aspaldi zegoen semeari noiz tokatuko zain. Antzeko adinez maitemindu zen bera ere, hamalau urterekin, eta orduan ere mundua marrubi kolorekoa iruditzen zitzaion.

Gero jakin zuen ez zela hala.

Goizero ikusten zuen semea, beste jornalariak jaiki aurretik zelaietara joan, eta han aurkitutako marrubirik ederrena neskatzaren otarrean uzten.

Eta goizero tristatzen zen ama, bazekielako uda amaitzean etxera itzuliko zirela, eta gainontzekoek ere hala egingo zutela, eta marrubiak ez zirela gehiago bihotz izango.

Eta uda amaitzean, marrubien koloreak gorri jarraituko bazuen ere, ez zuten gehiago zapora gozorik izango.

Bihotz minaren zapora izango zuten.

Goizero, aita eta biak bizi ziren etxolako atea zabaldu bezain pronto, marrubien otarra arakatzen zuen Mariak.

Eta goizero, bere maitasunaren forma zeraman marrubia aurkitzen zuen bertan.

Gorria.

Ederra.

Goizero, bizitzak merezi zuela zerion bihotza aurkitzen zuen otarrean, eta, maitasunez, magalean jaso eta indar berriz abiatzen zen gorri kolorez jositako zelai berdeetara.

Lanera.

Eguna ematen zuen bere otarra behin eta berriz marrubiz betetzen. Gorri-gorriak batzuk. Laranja antzekoak besteak. Borobilak, hiruki antzekoak, txikiak, handiak, kolpatuak eta distiratsuak. Baina inoiz ez zuen aurkitzen magalean zeramanaren edertasuna zuenik.

Magaleko patrikan zelai horietako marrubirik ederrena gordetzen zuelako.

Eta goizero, bezperakoa baino marrubi ederragoa izaten zen.

Bihotza irrikan zuen arren, ez zekien nor zen bere ezkutuko maitalea. Bere adineko mutil asko zebiltzan inguruan, goizetik gauera lanean, eta batzuk inoiz begira sumatu





Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea

bazituen ere, ez zuen inoiz inorekin hitz egin. Ez zuten elkarren hizkuntza ulertzen.

Goizero esna egoten zen.

Adi.

Bazekien ate ondoan pausu hotsak entzun bezain pronto jaikiz gero, hainbeste desio zuen hura topatuko zuela, isilka, bere bihotza otarrean utziz.

Baina bazekien ere, bera ohetik mugitu bezain pronto, ohe berean lo egiten zuen aita ere esnatuko zela, eta hobe zen horrelakorik ez gertatzea.

Hobe zuen bere maitasunaren gorria bihotzean gordetzea.

la emakumea zen.

Haur bat izan zen bitartean lan ugari egin behar izan zuen berak familia aurrera ateratzeko. Eta orain, trukean zerbait espero zuen.

Berak hazi zuen.

Berak hezi zuen.

Eta orain, ia emakumea zen. Beraz, bazuen biontzat lan egiteko gaitasuna.

Ama falta izanaren errua ez zen berea. Alabarena baizik. Bere etorrerak eragin zuen amaren falta. Berari zegokion beraz, amaren papera betetzea, finean ia emakumea zen.

Eta aspalditik ari zen ongi betetzen paper hori.

Gutziz.

Bera gizon heldua zen. Etxolaren kanpoan itxaroten zion egunero, iluntzero, marrubien otar hutsarekin bueltan zetorrela.

Emakume itxurarekin zetorrela.

Eta gauero, etxolara sartzeko imintzinoa egin bezain pronto, besotik heltzen zuen. Besotik heldu, eta maindireko patrikan gordetzen zuen marrubia hartzen zion.

- Hori nirea da! -esaten zion alabak orduan.

- Zu nirea zara. -erantzuten zion aitak, marrubia eskuratuz.

Maitasun keinua zen marrubi hori. Alabak aitari eskainitako maitasunaren adierazgarri.

Zer bestela?

Eta gauero, egunaren azken argien agurrekin alaba gelara joaten zenean marrubia jaten zuen aitak.





Astiro.

Bere zapore gozoa dastatuz.

Eta marrubiaren gorritasun gozoa oraindik ahoan zuela, gelan sartzen zen bera ere, gozotasun gehiagoren bila.

Azken finean, ia emakumea zen.

Poliki.

Astiro.

Eta... klak.

Marrubiak biltzeko labana sartu zion lepoan.

Eta eskutan, bero, odolaren zirristak sentitu zituen Mariak.

Marrubien kolorekoak.

\* \* \* \*

Gau osoa eman zuen esna.

Sukaldean eserita.

Adi.

Eta egunaren lehen argi-izpiekin, goizeroko pausu hotsak entzun orduko, zegoen tokitik jaiki eta atea zabaldu zuen.





Kaleko atea.

Marrubiz gorritutako zelaietara ematen zuen atea zabaldu zuen.

Eta bere bihotzaren atea zabal-zabalik geratu zen.

Ate aurrean zegoen.

Begira.

Berari begira.

Eta berak, oraindik ere marrubia eskuan zuela, bere begiradaren hitzak ulertu zituen.

Begiak baitziren haien ahoak.

Begiradak hizkuntza.

Eta bihotzak, elkar ulertzeko erabiltzen zuten sentimendua.

Horrela ulertu zuen eskuan zuena zela jasoko zuen azken marrubia. Baina marrubi horrek ere, beste marrubiek bezala, kolore gorria arinduko zion otar baten beharra zuen.

Eta elkarrekin joan ziren bere etxeko atariraino, marrubiz jositako zelaien, eguneko lehen argien itzalpean.

Han utzi zuen marrubia.

Bihotz itxurako marrubia.

Bere amaren otarrean utzi zuen marrubia, bihotza airean gorri.

Eta Mariaren eskua helduz, elkarrekin zeharkatu zituzten bihotz gorri jositako zelai berdeak. Eta elkar maitatuz abiatu ziren beraien maitasuna gorri koloretik berdera aldatzen utziko zien mundu berri baten bila.

Esperantzaren berdea.

Eta maitasunaren gorria.

Biak elkarrekin.

Bihotz itxurako marrubiak osatuz.





julene azpeitia  
lehiaketa 2003

**b e r t s o**  
**p a p e r a k**



## **Mikel Zumarraga Azkarate**

Irabazlea 11-12 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea



Natura zaintzen

Txikitatikan ditut maitatu  
gure mendien hainbat bazter  
txikitatikan ditut ikusi  
hainbat lore, gauza eder  
Baina oraingo jende gehiena  
nire ustez dabil oker  
ekosistema ederra zaintzeko  
egin beharko guk zeozer

Mendeak pasa eta jendeak  
galdu du nekazaritza  
lehen ugaria zen lanbidea  
orain urria ta anitza  
hemen baserritarra bezala  
esaldi baten aditza  
mundu berri bat eraikitzeko  
baserritarrei lehen hitza



Gauzak galduta orain daukaguz

makinatxo bat arazo

ta oraingo ohiturak egin deutse

izadiari eraso

Fuelak baltz-baltz ta zikin utzi dauz

behintzat bizpahiru itsaso

harri berean bi bider jausten

noiz utziko guk akaso





## **Matxalen Manzidor Mugertza**

Irabazlea 13-14 urteko sailean  
San Antonio - Santa Rita Ikastetxea



## Euskera ta euskaldunak



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea



Gure Euskal Herriko  
pertsoneen jarrera  
ez dela ona esaten  
ausartuko gera  
Gero ta gutxiago  
egiten da euskera  
horregatik sartu da  
tamalez erdera (bis)

Guzti hau konpontzeko  
joan behar da zatika  
lenengo hartu behar da  
euskeran praktika  
ta gure aurka daudenak  
gogoz madarika  
guztiekin batera  
bultzatuz korrika (bis)





Guzti hau egiteko  
ez euki beldurrik  
denok batera gaude  
talde bat sorturik  
bide honetaz aparte  
ez dago besterik  
aurkitzen duenarentzat  
badago txapelik (bis)



## Izarne Totorika Txurruka

Akzesita 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



# Bertsoak



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea

Hantxe ezagutu zintudan  
pasadan urteko udan  
berehala utzi ninduzun  
edertasunez liluran  
esperantza jarria dut  
oraindik maitia gugan  
eguneko oroitzapenak  
oinarritzen dira zugan  
Zurekin joan nahiko nuke  
herriz herri abenturan  
bidean senti zaitzadan  
beti nerekin loturan  
sentitzen naiz gorrotoa  
ta maitasunaren mugan  
ezin dezakezu pentsa  
bihotza nik nola dudan



Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea



julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea

Gorputz fin eta lirain bat  
nahi duzula badakizu  
zu neska perfektuetan  
beti izan zara maisu  
zuregatik ditut orain  
horrenbeste konpromisu  
zu nereganzekotan  
dena egiten dut aizu  
Zuregatik galdu ditut  
hainbat indar eta pisu  
eta hori egitea  
inoiz ez da paradisu  
zuk ere konturatzeko  
mesedez zerbait egizu  
Jokin, batzutan itsu tentel  
gizajo bat dirudizu

Nere indarrak ahultzen  
joan dira maldan bera  
bizitzako balantza be  
jarri zait niri gainbera  
jada denbora gehiago  
ez noa aguantatzera  
horrela jarraitzekotan  
zu ahaztea hobe da  
Elkarrekin hitz egiten  
batzutan ibiltzen gera  
belarrira xuxurlatzen  
didazu noizbait gainera  
baina pentsamenduetan  
bakarrik murgiltzen zera  
ta nik ezin dut harrapatu  
amaierako bandera



Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea



**Uxue Alberdi Estibariz**

Irabazlea 18 urtetik gorako sailean





julene azpeitia lehiaketa • 2003 urtea



# Erdi bana

Doinua: *Nafragoarena*



Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea

Zure muxuen lorratz epela  
zure eskuen arte itzela...  
bi hitzez, labur, azaltzekotan  
zoriontasun umela  
Parke, mendi nahiz logela,  
igogailua bestela,  
denak egoki zirela;  
hasera baten pentsatzen nuen  
maitale denek bezela,  
maitasuna ta ilusioa  
banaezinak zirela.



Denborak luze, azkar pausoa,  
monotonia hain temosoa!  
izarrak jada astro soil dira,  
ur masa da itsasoa...  
igogailua sosoa,  
parkea ez da gozoa,  
mendia ezerosoa...  
munduak buelta eman du edo  
gu al gara arazoa?  
Galtzear gaude behin rutinari  
jokatutako pultsoa

Ondo moldatzen gara batera,  
inoiz haserre egon al gera?  
baina zerbaitek, oharkabean  
bultza nau gure kaltera  
zurekin ez amestera  
ta zu ikusiz batera  
hitz totelka ez hastera;  
eta kostata ta pena handiz  
iritsi naiz ulertzera  
penarik eza ta zoriona  
ez direla gauza bera.



Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea



Pentsamendu bat daukat lizuna  
klaseko horren azal leuna...  
baina zer nabil, badut mutila,  
badaukat etorkizuna.  
Zure magal ezaguna,  
oroitzapenen kuttuna,  
haren pikarotasuna...  
Zuk behin ta berriz eskaintzen duzu  
betirako maitasuna;  
hark irribarre txiki batekin  
alaitu ohi dit eguna.

Haren gorputza ezin ukitu  
ta horren ezpain politak ditu...  
nik begiekin maiz biluzten dut  
nahiz gero gaizki sentitu,  
bere aurrean gorritu,  
dardarizoak nozitu  
eta zugatik sufritu;  
nahiz desioa izan liteken  
nire aurkako delitu  
ezinak nahia handitzen du ta  
nahiak ezina txikitu.

Zu izan zara nire sorleku  
hortaz, maitea, ondo jabetu;  
nahiz ta zuri zor hamaika amets,  
maitasun ta errespetu,  
zenbat desio sekretu  
ta pasio giltzapetu,  
nahiak adina debeku...  
Ta bihotz hontan nola, ba, egin  
nik zorionari leku  
haren babesak alaitzen banau  
ta zure ezak tristetu?

Beti izan naiz neska azkarra  
baina galdu dut guztiz iparra;  
maite al zaitut edo ohiturak  
sortu dit zure beharra?  
Batu nahi nuke indarra  
ta zu nigana amarra,  
baina non da lehengo garra?  
Oroitzapenez ezin naiz bizi  
baina gauza bat du txarra:  
oroitzapenak dira ahaztu  
ezin daiteken bakarra



Julene azpertia lehiaketa • 2003 urtea



Hau da nekea, hauxe da lana,  
ezin dut jasan halako zama,  
ta pentsatu dut zuen artean  
banatzea naizen dana;  
bihotza zuri, laztana,  
gorputza hari emana,  
zuentzako erdibana!  
Ez dut galdu nahi etorkizuna,  
ezta ere iragana...  
martxa honetan neure burua  
da galdu behar dudana!



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento